ELA EUSKAL SINDIKATUA

# POR EL AUTOGOBIERNO, POR LA SOBERANÍA

## ¡Participa en la cadena humana del próximo 10 de junio!

**A lo largo de los años se ha ido recortando de manera sensible el autogobierno vasco.** Ahora, aprovechando el conflicto planteado en Cataluña, no sólo se ha suspendido su autonomía (art. 155) sino que se hacen fuertes las tesis más favorables a una mayor centralización. ELA cree que urge tomar conciencia de lo que está sucediendo con nuestro autogobierno para poder definir una estrategia de futuro.

### LA EROSIÓN DEL AUTOGOBIERNO

El deterioro del autogobierno se está produciendo de distintas maneras. Sin ánimo de ser exhaustivos señalamos algunas:

1. Aun hay **competencias que no han sido transferidas.** Son poderes previstos en el Estatuto y en el Amejoramiento Foral que el estado ha decidido unilateralmente no transferir. Esas competencias tienen que ver con el desarrollo económico; infraestructuras; agricultura, ganadería, pesca y alimentación; empleo y políticas sociales; medio ambiente; hacienda y economía; educación; salud; turismo; cultura y política lingüística; seguridad; y trabajo y justicia.

2. El **estado recurre numerosas leyes** que aprueban nuestros parlamentos. Así, en la CAPV, se han recurrido leyes como la de consultas, EPSVs, seguridad pública, vivienda, fracking, drogodependencias, reparación de víctimas… En Navarra se han recurrido las leyes que garantizaban la sanidad universal, la de igualdad social LGBT, energías renovables o la de asociaciones de consumo de cannabis.

3. **Se recurren acciones de gobierno.** En la CAPV ha sucedido esto con el régimen de prestaciones sanitarias, OPEs de la Ertzaintza, la jornada laboral de los funcionarios, el régimen de contratación en el sector público.

4. La legislación estatal y la jurisprudencia del Tribunal Constitucional suponen **más centralización.** Esto afecta a multitud de materias como la seguridad alimentaria, política ambiental, sistema educativo, gasto público, fomento de empleo, energía, funcionamiento de la administración, subvenciones, sanidad, transporte… En estas y otras materias, el estado legisla imponiendo sus políticas. Y cuando se produce un conflicto, el Tribunal Constitucional otorga sistemáticamente la razón al estado.

5. En materias muy importantes, **la erosión se produce de manera pactada** entre los gobiernos de Gasteiz e Iruña con el gobierno de España. De las recientes, las más significativas, por sus consecuencias, son la Ley de estabilidad presupuestaria y la llamada Regla de gasto. Mediante estos pactos se limita la capacidad de nuestras instituciones para modificar incrementar el gasto social.

6. Hay **decisiones del estado que devalúan el estatus político** de nuestras instituciones, para imponer la preeminencia del estado. Así se estableció, por ejemplo, que el Parlamento Vasco carece de la inviolabilidad de que gozan todos los parlamentos en democracia.

7. Se cuentan por miles las **decisiones de Ayuntamientos que vienen siendo recurridas**, especialmente por los delegados de gobierno. Los símbolos, el euskera, las consultas locales o las ayudas a los familiares de presos y presas están de manera constante en el punto de mira del estado.

8. Y finalmente, un asunto central para los y las trabajadoras: la **centralización de la negociación colectiva** con la que se nos empobrece. La patronal, CCOO y UGT impiden desde el Estado que las mayorías vascas podamos establecer nuestras condiciones de trabajo.

### MOVILIZARNOS POR LA SOBERANÍA

De lo señalado podemos concluir que nuestro marco de autogobierno es totalmente precario. **El estado no respeta ni nuestras leyes ni nuestras decisiones.** Por ello, quienes defienden la existencia de una relación bilateral faltan a la verdad.

Tenemos derecho al autogobierno y **necesitamos soberanía para construir un país distinto,** tanto en la orientación de las políticas públicas (empleo, protección social…) como en el modo de abordar retos como el cambio climático o la insostenibilidad del modelo económico en vigor. Necesitamos otros modelos de energías, finanzas, alimentación, cuidados o transporte. Necesitamos poder decidir sobre todas estas cuestiones, y sobre nuestra relación con España.

El próximo 10 de junio –impulsado por Gure Esku Dago– va a realizarse **una cadena humana** que unirá las capitales de la Comunidad Autónoma Vasca. Con ella se pretende mostrar la adhesión ciudadana al derecho a decidir. **ELA llama a su afiliación y a la ciudadanía vasca a participar** en ese acto.

❒

ELA EUSKAL SINDIKATUA

# AUTOGOBERNUAREN ETA BURUJABETZAREN ALDE

## Parte hartu ekainak 10eko giza katean!

**Urteak joan ahala euskal autogobernua mozten joan dira urteen.** Orain, Katalunian piztu den gatazka baliatuta, hango autonomia 155. artikuluaren bidez eten eta gainera zentralizazioa areagotzeko tesiak ari dira nagusitzen. ELAren iritziz konturatu egin behar gara gure autogobernuarekin zer gertatzen ari den, etorkizuneko estrategia bat erabaki ahal izateko.

### AUTOGOBERNUAREN HIGADURA

Autogobernua era askotan ari dira hondatzen. Ez ditugu denak aipatuko, baina hauek dira adibide batzuk:

1. Oraindik ere badira **transferitu gabeko eskumenak**. Gernikako Estatutuan eta Foruaren Hobekuntzan jasota egon arren, estatuak alde bakarretik erabaki du ez dituela transferituko. Eskumen horiek hainbat arlotakoak dira: garapen ekonomikoa; azpiegiturak; nekazaritza, abeltzaintza, arrantza eta elikadura; enplegua eta gizarte-politikak; ingurumena; ogasuna eta ekonomia; hekzuntza; osasuna; turismoa; kultura eta hizkuntz-politika; segurtasuna, eta lana eta justizia.

2. Estatuak **gero eta helegite gehiago sartzen du gure parlamentuek erabakitako legeen aurka**. Eragindako gaiak: EAEn, Kontsultak, BGAEak, Segurtasun publikoa, Etxebizitza, Fracking, Drogomenpekotasunak, Biktimen erreparazioa... Nafarroan, helegitea jarri dute osasungintza unibertsala bermatzen zuen legearen aurka, edota LGTB berdintasunari, energia berriztagarriei edota cannabis kontsumitzeko elkarteei buruzkoen aurka.

3. **Gobernuaren ekintzak ere errekurritu dituzte**. EAEn hau gertatu da hainbat gaitan: osasun-prestazioen erregimena, Ertzaintzako LEP, funtzionarioen lanaldia, arlo publikoko kontratazio erregimena.

4. Estatuko legeek eta Auzitegi Konstituzionalaren erabakiek **berzentralizazioa areagotzen dute.** Horrek hainbat arlori eragiten dio: elikagaien segurtasuna, ingurumen politika, hezkuntz-sistema, gastu publikoa, enpleguaren sustapena, energia, administrazioaren funtzionamendua, dirulaguntzak, osasungintza, garraioa... Gai hauetan eta beste batzutan, estatuak lege bidez bere politikak inposatzen ditu. Eta gatazkaren bat sortzen denean, Auzitegi Konstituzionalak arrazoia beti Estatuari ematen dio.

5. Gai oso garrantzitsutan **higadura Espainiako gobernuarekin adosten ari dira** Gasteizko eta Iruñeko gobernuak. Azkenekoak eta esanguratsuenak, duten eraginagatik, Aurrekontuen Egonkortasun legea eta delako gastu-araua dira. Itun horiek baldintzatu egiten dute gure erakundeek gizarte-gastua aldatzeko duten ahalmena.

6. Estatuaren zenbait erabakik **gure erakundeen estatus politikoari indarra kendu** diote, estatuaren lehentasuna sendotzeko. Horietako bat, garrantzi handikoa, da Eusko Legebiltzarrak ez daukala demokrazian parlamentu guztiek duten bortxaezintasunik.

7. **Udalen milaka erabaki errekurritu dituzte,** batik bat gobernuaren ordezkariek. Estatuaren jopuntuan daude etengabe euskara, tokiko kontsultak edota presoen senideentzako laguntzak.

8. Azkenik, langileontzako funtsezko gaia: **negoziazio kolektiboaren zentralizazioa,** zeinak pobretzen gaituen. Patronalak, CCOOk eta UGTk Estatutik eragotzi egiten digute euskal gehiengooi gure lan-baldintzak finkatzeko aukera.

### BURUJABETZAREN ALDE MOBILIZA GAITEZEN

Horrenbestez, ondorio bat atera daiteke: gure autogobernu-markoa ez da inola ere sendoa. **Estatuak ez ditu errespetatzen gure legeak, ezta gure erabakiak ere.** Horregatik, alde biko harremana goraipatzen dutenek ez dute egia esaten.

Autogobernua izateko eskubidea zor zaigu, eta **burujabe izan behar gara bestelako herri bat eraikitzeko,** hala politika publikoetan (enplegua, gizarte-babesa...), nola erronka jakin batzuri aurre egiteko moduan: klima aldaketa, egungo eredu ekonomikoaren etorkizunik eza... Beste eredu batzuk behar ditugu hainbat arlotan: energia, finantzak, elikadura, zaintza edo garraioa. Gai hauei guztiei buruz erabakitzeko aukera izan behar dugu, baita Espainiarekiko gure harremanaz ere.

Datorren ekainaren 10ean Gure Esku Dagok bultzatuta Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuak batuko dituen **giza-katea izango da.** Berarekin adierazi nahi da herritarrek erabakitzeko eskubidearen alde daudela. **ELAk bere afiliatuei eta euskal herritarrei dei egiten die deialdian parte hartzera.**

❐